

JOXAN ARTZE

Joxan hil ondoren, berari buruz idatzitako artikulu ederre-netarikoa niretzat, Karmel aldizkarian agertu da, aurtengo lehenengo zenbakian. Egilea, Luis Baraiazarra. Berau ere olerkari eta idazle aditua danez, hortik doa gehien bat bere azterketa zorrotza ere. Juan Mari Arrizabalagak dakazan oroitzapenak ere oso hunkigarriak. Baita egokia eta mesedegarria gainera Juan Marik osatutako Joxanen bibliografia ere. Neuri ere berari buruz zerbait idaztea bururatu jat. Haren liburua, “Heriotzaren ataria dugu bizitza”, goitik behera gustura irakurri ondoren. Darabilzan gaiak gogoko ditut. Besteak beste: Jaungoikoa eta izadia, heriotza eta bizia, burua eta bihotza, handia eta txikia, mugatua eta mugagabea, “ongi izatea”ren barneko tristezia, eta... Bere ikuspegia azaltzeko, sinboloak, irudiak, parabolak, alegoriak, metaforak, konparaketak, etsenpluak oso erakargarriak. Beti ere esaera indartsuak erabiliz. Ez dakit erderaz hain labur eta ederto gauzak adierazi leikezanik ere. Deklinabide atzizkiekin jolasten dabilela dirudi, esaera borobilak sortzen. Adibidez: “...harrokeria, gaitz gaiztoa, gaiztoenetakoa ez bada gaiztoena...”, “...elur zuria bere zurian tinko zuri-zuri non baino non zuriago...”; “...egiazkoa dena ez da sekula aspergarria, poz guztien iturri, pozaren pozez pozetik pozagora, bizirik biziena biziki bizitzea...”Ez baneukaz bizkarrean hainbeste urte, gustura sartuko nintzake Joxa-

nen munduan bere lana eta izatea sakontzeko. Merezi dau honelako euskal olerkari eta txalapartari eta pentsalari bat ezagutaraztea. Lantxo honetan, goian aipatutako Joxanen liburua irakurri ondoren, nire barnean sortutako zirrara batzuk aipatzea besterik ez da izango. Horretako bere hainbat testu eder jarten ditut apropos. Batzuentzat ez diralako izango ezagunak eta besteentzako barriro hausnartzeko aukera. Hori bai, kontuan daukat Joxanen abisua: “Zenbat begi, hainbat ikuspegi”. Hauxe berau, ze ederto azpimarratzen dauan gure pentsalariak etsenplu hau jarritz: “Milioika balira ere harritxo txikia lekusketenek, guztiek lukete ezberdin ikusiko, eta are beste mila milioiek ere, bakoitzak alderdi berri ezberdina ikusiko lioke horren mugatua dirudien harritxoari. Bihotzaren eta buruaren argitan egiten dau bide gure artistak. Horreen argitan darabilgu “sasi gaintetik eta hodeien azpitik lez, hodei guztien gaintetik eta are sasi guztien azpitik”. Bihotzaren argiak esan gura dau: maitasuna, sentsibilitatea, sinismena, emozioa, intuizioa, sentimendua, irudimena, inspirazioa... Eta buruarena, ostera: arrazoaia, inteligentzia, logika, argudioa, argumentua, kontzeptua... Azalpen hau kontuan hartzekoa da Joxanengana hurretratzean. Bihotzaren argitasuna argiagoa da buruarena baino. Bihotzarena, eguzkiaren argitasunaz konparatzen dau eta buruarena, barriz, ipurtargiarenaz edo ilargiaren argi hotzagaz. Sarri sumatzen da berezitasun hau Artzeren olerkietan. Klaru nabaritzen dau logikaren eta intuizioaren argi-iturrien desbar dintasuna. Bere anaiaren heriotzean edo etxe alboko zuhaitzari begira, bihotzaren argiz argituta sentitzen dau Joxanek bere barrua:


“...anaiaren heriotzean, hasieran ez zen atsekabea baizen nire barren guztia kiskaltzen; atsekabe huts itsua, besterik ez... Ondoko goiz batez, bat batean honako xuxmurra igon zitzaidan saminaren zolatik: ‘gaizki hagoelako ongi hago’...! Bertan ulertu nuen ene atsekabea ez zela atsekabe hutsa: gaizki ba-

nengoen maite nuelako zen, maite nuelako nengoen atsekabe-turik... Banuen, beraz, zertaz poztekorik ene atsekabeen...!”.

Beste behin, etxe ondoko zuhaitza ikustean gertatu jakona ere esanguratsua: “Amaikatan ikusitako zuhaitza, ustez ikusitakoa, han zenuen bestetan bezala... Bestetan ez bezala, ordea, ikusi zenuen egun batez, nahiz eta bestetan legez hark zuri begiratu; bestetan ez bezala agertu zitzaizun; beste begiz begiratu zuk nonbait, ez aurpegikoez soilik...! Hortxe, geldirik, ixil-ixilik, zuhaitza, ezer esan gabe zer ez zizun esan une hartan!”.

“Diren guztien Irazalea”

Joxanentzat Jaungoikoa ez da zerbait, Norbait baino. Behinik behin, “diren guztien Irazalea”. Izadi guztia Kreatzailearen “ispilu”, “aztarna”, “irriño”, “distira”, “pindar”, “itzal” dogu. “Hitzak (Jainkoak) guretzat apropos idatzitako lehen liburua dugu Izadia. Liburu sagaratua irakurtzen dakienarentzat...”. Gauza txikienak eta handienak daroe Jaunaren aztarna. “Jainkoa, bere haundiaren haundiagatik bezain zaigu ttikiaren ttikiagatik antzemanezina”. “Non coerceri maximo, contineri minimo hoc divinum”, inoen klasikoek. Artzek hunkituta eta hobeto ezin: “Horren maitagarri bazaizkigu txorien txor-txor eta txorrotxioak, haizearen ziztua, ostotsen zanbarra, itsasoaren burrunbotsa eta indarra, tximistaren ziztakoa bezala izarren ñirñir zilarra, zure ixiltasunaren ahots, maitasunaren zaren horren distira eta ahala direlako da doiake”. Baleiteke lirismoz hain ederto jantzi baga, baina bai klaru: “Izaki guztien bidez mintzo zaigu Izpiritua, diren izaki guztiak mintzo dira Hartaz. Izpituaren mintzoa dira izaki guztiak... baina hauek jakin gabe; gizakiak bakarrik, gizakia delako eta izadiaz gaindiko batez ere, da jakinaren gainean mintzo”. Juan Kuru-tzekoaren pentsamendua nabarmentzen da, Artzeren olerki sakon ederrean: “Diren guztien Irazaleak, esateko guztia, be-



hin esan zigun, hitz bakar batean esan, izatea eman zigunean. Behin esan eta esaten darrai, Haren behingoa betikoa denez; guri dagokigu orain Harekin hitz egitea”. Eta beste honetan, Agustin handiarena ere nabaritzen da: “Ni baino niago dudan, zu baino zuago duzun, dugun Argia”. Joxan bihotz-ikaraz hunkituta sentitzen da Jaungoikoaren urruntasuna eta hurbiltasuna aldi berean hain alkarturik ikusita: “Urruna da, ezin urrunagoa, baina guretzat ezin hurbilago eginik dugu gutakoa egin zitzaigun ezkeroztik: ene bada! urrunena hurbilen eginik...!” Juanen Ebanjelioaren “Verbum caro factum est” esana, dirudi. Gustura dakarz gogora maisu sufiaren arabera Jaungoikoa ikusteko erak: “Jainkoa besterik ez ikusi. Gauza guztiak Beragan ikusi. Jainkoa gauza guztietan ikusi. Biok berdintsuak. Gizon arruntarena: gauzak ‘eta’ Jainkoa ikusi. Eta azkenik, ezjakinarena, gauzak besterik ikusten ez dituenarena, Jainkoa alde batera utziz”.Argi dauko Artzek zein dan olerkariaren eta gizakion lana. Bakotxak bere jarduera mugatuaz mugagabea aldarrikatzea. “Gure gain dugu, gai garen bakkarrak garelako munduan, gizakumeoi dagokigu izadian irakurtzeke dagoena irakurtzea, entzuteke dagoena entzutea, entzun eta, irakurri eta, irakurria eta entzuna geutzea, maitatuz geutzea, geutuz, izan ororen izen ezkutua agertzea, izen berekia sei haizeetara oihukatzea... goitan goiari, behean beheari, luzean aurreari lez atzeari, zabalean esker eta eskuinari... (...) Mundua ederra da, txit ederra, eta ona, txoil bikaina, Irazaleak irazan guztia legez, eta onerako dugu, mugarte hertsi hau mugagaberako bide bezala bizi dugunean; ez munduak bere barruan gauzkanean, geure barruan daukagunean mundua baizik. Paulo Jaundoneak dioenez, kreaio guztia intzirik dago bera ere askatuko duen gizakien askatasuna noiz iritsiko...”. Horretarako biderik ederrena, maitatzea, zuzen jokatzeta, egiaren argitan ibiltea, on egitea. Zelako erronka botaten dauan Joxanek: “Ez al dugu bihotzean garbi nabari On, Egia, Eder, Zuzen den bakarra dela geugan on dagiena, egia

dioena, ederrik suspertzen duena, zuzen diharduena, hots, Maitasun hutsa dena dela geugan maite duena...?”.

“Heriotzaren ataria dugu bizitza”

Joxanen arabera Jaungoikoa gauza guztien Irazalea dogu baina batez ere: “Maitasun hutsa dena dela geugan maite duena”; “Gure ona besterik nahi ez duena”; “Bihotz betean maite gaituena”; “Amak berak baino lehen jada maite gintuena”; “Guk geuron burua baino askoz maiteago gaituen adiskide ezin adiskideagoa”; “Neurrigabeki betidanik eta betidaino maite gaituen Atta”; “eztia baino gozoagoa Egiaren ezagutza hortik jaiotzen da-ta maitasuna”; “sinisgabeei eta sinistunei bihotzean mintzo zaiena”; “eguzkia eta euria onentzat nahiz gaiztoentzat” bidaltzen dauana; “inoiz bakarrik uzten ez gaituena”... Ze dotore eta indartsu abesten dauan Jaun biziaren betidaniko maitasuna. Zenbat bider dakarsku gogora Jaunaren neurribako leialtasuna. Norbaitek galdu leike gurasoen eta senideen eta lagun minenen maitasuna baina inoiz ere ez Jaungoikoarena. Ez gaitu inoiz bertan behera izten. Hainbat gitxiago heriotz ondoren. “Zail eta neke izanik ere, norbaitek gal dezake attaren maitasuna, zailago eta nekeza-go izan arren bai eta amarena ere, baina, ez, ez sekula, amak berak baino lehen jada maite gintuenarena”; “ez dago inor bakarrik, ez baikaitu inoiz bakarrik uzten barne-barnean beti gurekin dugun, inoiz bakarrik uzten ez gaituen adiskideak, adiskide bakarrak. Beste guztiek, guzti-guztiek, dela adiskideek nola senideek, leialenak nahiz minenak izan, bertan behera utziko gaituzte gutxien ustean; eta ez amodio eskasez, ezin bestez... haiek gu, edo guk haiek utzi beharko, lur honetatik aldegitan. Hark, ordea, ez! Ez gaitu utziko guk geuron burua baino askoz maiteago gaituen adiskide ezin adiskideagoak. Ez gaitu inoiz bakarrik uzten, ez badugu guk bera, ez berak gu: geugara, geu, ez gaudenak berarekin; ez bera gurekin!”.Liluratuta sentitzen da Jaungoikoaren betidaniko maitasunaz. Bizipen

zoragarri hau barne-barnean daroa. Horren edertasuna nahi leuke aldarrikatu bihotz gabeko egungo gizartean: “Asko eta askoren egoera negargarria: ez dakigu zein maitatuak garen, eta ez dakigulako, maitatuak ez bagina lez bizi oi gara, inork maitatuko ez bagintu bezala... nahiz eta oso maitatuak, ezin maitatuagoak izan guztiok! Harik eta gu, gu geu maitatzen hasi arte, ez dugu jakiten, ezin jakin, zein heinetaraino garen neurrigabeki maitatuak, eta betidanik, eta betidaino izatekoak!” Harrituta daukagu Joxan “ongi izate”aren paradisuari bizi gareanon egoera negargarriaz. Batetik gaurko gizartearen oinarri sendorik eza eta bestetik maitasunik eza gure umeen eta gaztetxoek hezkuntzan:

“Zerbaitek bereizten badu gure gizon eta gizarte modernoa beste inongo eta inoizko gizarte eta gizon zentzudunetik, zera dela, guztia dugula zalantzan jartzen (ez inolaz ere egia bilatzeko asmoz; egia oro zalantzan ezarriz, gezurak ziurtzat emateko baizik); guztia zalantzan, ez dugula ezer ziurrik, hori daukagulako jakinduriaren gailurtzat... (...) Ez duela oraindik asko, beste inongo inork ez bezala maite, maite gaituena maitatzeari utzi genion; utzi, batere maite ez gaituena maitatzeko, are ezin gorrotoago gaituena maitatzeko haren orde. Gizona ezin baitaiteke maitatu gabe egon; maite ez badu usoxuria, maiteko du sugedorria. Guk kaltea besterik ez duena maitatzeko utzi genion, nori eta, gure ona besterik nahi ez duena maitatzeari”.

Gaurko bihotz gabeko kulturak “autistak” non-nahi sortzen ari da. Erru asko gizartearen eta familiaren barnean maitasunik eza eta permisibitate larregiz bizitzea. Gauzak emon eta emon baina bizi izateko baliorik eta motiborik ez. Inportantzia gehiago emoten jako eukiteari barneko izateari baino. Gure telekumei ezer ez jakela falta dirudi, baina barnean triste:

“Zer gura, eta hura eman... halere muttikoa triste! Nahi orduko, eskatu ahala eskuratu du nahi duena, lortu gura duen guztia... halere muttikoa triste oraindik triste, triste baino tris-

teago! Nahi duen guztia eman diote, baina ez inork, inork ez, behar duena!”

Zer behar dabe gure ume eta mutikoak? Gurasoen maitasuna: “Zuen haurrak zuek nahi zaituzte, zuek, zuek behar baitzaituzte biziki; zuek duzuen ogia baino zareten egia beharrago, zuek eman zakizkioten behar, zuek zaretena, zuen maitasuna”. “Umezurtz izatea gogorra da gogorretan! Hala ere ez ote gogorragoa anitzez, eta ankerragoa, maite ez zaituzten aitamekin bizitzea?” Maitasunak bakarrik bizibarritzen gaitulako, egiazko maitasunaren profeta dogu Joxan: “Maitatzea zer dan ez dakienak ez du eta ezingo inoiz ulertu maite duenak maite dituenengatik dagiena”. “Bizia baino gozoagoa baita maitasuna, eta oraindik gozoagoa, are ezta baino gozoagoa Egiaren ezagutza hortik jaiotzen da eta maitasuna”. Horren hazia ereitera deitua sentitzen da gure olerkaria. Nahiz eta gaurko “gizon modernook” dana hankaz gora jarri, oso itxaropentsu agertzen jaku maitasunaren hazi ona ereitera lur txarrean ere:

“Haizea bezala barreiatu hazia, euria bezala erein, lurrik den edonon; lur onean bada, hobe, baina ona ez delako ez utzi lur txarrean erein gabe. Txarrean ere erein, nork daki hazi onak onaren onez, ez ote duen lur txarra bera onduko...! Txarra izan arren lurra lur da gero bere lurtasunean, lur, beti, eta lur deino, berez on, eta, beraz, hobetzeko gai. Bestalde, lur txarrean ere ez al du hazi onak txarrak baino hoberik emango?”

Hazi onaren frutua behin betirako izango da: “Maite dutenek maitasun argiz egunetik egunera maiteago eta argiago, argiago eta maiteago, unetik unera eta urtetik urtera dute eta zaie bizia biziago, eta heriotzara hurbildu arren dira bizia biziago bizi, itzalezina den argi biziak dauzkalako pizturik”.

“Apaltasuna egian oinarritzea”

“Barruenean esanik zaiguna, behin ixilean esan zitzaiguna ozenki aldarrikatzeke gaude gu hemen; lurrean zerua kanta-

tzeko, hemen...”. Zoragarria gizakion bokazioa! Baina makina bat aitzaki-maitzaki bide hortatik ihes egiteko. “Gizaki orok, jakina, nekazariak bezala zizelkariak edo fisikariak, baina batez ere olerkariak, ez daki zer dagien mugagabea duenean alde batera baztertzen; atea ixten dizkionean bihotzari, bihotzetik datorrekin hats azkengabeari. Ez daki, ez, ongi gizajoak zer dagien...”. Begiak argi, belarriak erne, bihotza zabal behar, Jaunaren irriñoa izadian susmatzeko. Oztoporik txarrena, gizon-emakumeon apaltasun eza. Eta, ordean, harrokeria sobran. Avilako Teresaren “apaltasuna egian oinarritzen da” edo San Agustinena “harrokeriak bertute guztiak bizio bihurtzen ditu, apaltasunak, bizio guztiak bertute” esanak onartuz, dino Artzek: “Apaltasuna geure burua den bezala ikustea da; ez gehiago, harrokeria litzateke, eta ez gutxiago, apalkeria orduan, beste harrokeria mota. Horregatik apaltasunak egiten gaitu haundi, gerez garen ezereza ikusarazten digulako eta, beraz, garena biziarratzen: Guztiak oztoporik ez orduan geugan guztiz izateko. Harrokeria, berriz, ez garena, ezereza biziarratzen; beraz, ezereztu egiten gaitu”. Harroputzei gogoratzten deutsee nondik datorren gure on guztia. Xehe-xehe ditotsee: “Apala izan gabe ezinezkoa zaio inori bere burua ezagutzea, orduan ezagutzen du ez dela ezer ere: den, duen, dezakeen, dazagun, dakusan, dakien, dagien guztia Dagienagandik dagiela, Dakienagandik dakiela, Dakusanagandik dakusala, Dazagunagandik dazagula, Dezakeenagandik dezakeela, Duenagandik duela, Denagandik dela den guztia”. “Harrokeria, gaitz gaiztoa, gaiztoenetakoa, ez bada gaiztoena: ez garenak izanarazten gaitu eta ez gatzazkio zipitzik oharitzen. Dagigun on guztia ere gaiztotzen digu... Gaitzenetakoa sendatzen, goi eta behe guk geuk asmatu izanik ez baitiogu ezer gaiztorik ikusten; azken hatseraino lagun du gizon orok, apalenek eta sainduenek ere; azken hatseraino hilkarrean borrokatu beharrekoa gupidagabeki, Jauna lagun dugula beti”.

Harrokeriaren ezaugarriak ze krudel eta klaru deskribatzen dituen Artzek: “Zein dugu hau, hamalau hau?; Zein dugu hor buruan, ‘ni’, ‘ni’, ‘ni’, ‘ni’ eta ‘ni’, hasi ttiki ttikitatik eta beti nika zaunkaka ari zaigun hau; gauza guztien aurretik eta gainetik beti bera, bera bakarrik, inoiz pozik ez, ezerk asetzen ez, inon egon ezin den, inoiz bakean ez dagoen mamu apetatsu hau, bekaizti zuri eta gezurti beltz, etoi eta berekoi amorratu hau, buruhiltzaile, koldar eta itsuz gain seko txorrea den mamorro momorro hau? (...) Nola daiteke ni hori gure egiazko nia izatea? Ez da gure nitasuna, jakina; ezin nikeria besterik izan: Horrek gaitu, noski, ez garenak izanarazten, ezereza bi-ziarazten. Horrexek dizkigu egin behar ez genituzkeenak eginarazten eta egin beharrekoak egitea galarazten: nahi duena egiten uzten badiogu, behar ez duguna egitera gaitu behar-tzen eta nahi ez genukeen zuzen asko eramaten.

Zuloan hertsatzen gaitu eta zapaltzen, ilharriak azpian daukana baino areago, azpian datzanari aukera eskaintzen. Hori dugu beste inork baino zapalago zapaltzen gaituen etsairik gogorrena, etsairik amorratuena; horren aldean munduko etsai guztiak, maltzurrenak, ankerrenak, bihotz gabeenak izan arren, ez dira aingerutxo otzan batzuk baizen”.

MAITASUNA, ez harrokeria, ez nikeria. Horren profeta do-gu Joxan artista pentsalaria.

“Zaindu dezagun maitasuna,
 loreetan ederrena bada, ederra bezain minbera baita;
 zaindu, zaindu begiratuki,
 lorerik minberena baino ere begiratukiago,
 minberagoa baita anitzez,
 zaindu beharrekoa egunero, uneoro,
 egunez eta are gauez...”

A. Olea